

bidegileak



Jean Marie Diharce *Iratzeder* (1920)

Egilea:

JOXE MARI AGIRRE

Haurtzaroko oroitzaipenak

Lehen mundu gerraren biharamunean, 1920an, jaio zen Jean Marie Diharce, Lapurdiko itsasaldean, Donibane Lohizunen. Hamar mila biztanle baino gutxiago zituen orduan Donibane Lohizunek, gaurko erdiak baino ere gutxiago. Artean, ez zuen noski, Donibane Lohizunek gaur duen hiri turista ezagunaren aipamenik, baina ordurako ere garrantzitsua zen bertako kaia, itsas arrantzari atxikia. Hala ere hiri kutsu nabarmena zuen, aldameneko herri anitzekin alderatuz gero, eta halaxe aitortzen du Iratzederrek berak ere urte batzuk geroago: «Hirian sor-



Jean Marie Diharce Iratzeder (1920)

tua naiz, karrika nagusian, diru-etxe baten gaineko bizitegian».

Urte berria estreinatu eta handik lau egunera, 1920ko urtarrilaren 4an sortu zen haurra *Martikonea* deitzen zioten etxean, han bizi ziren-eta bere gurasoak, Pantxo Diharce Laretxe eta Delfina Lassegue Okelar. Jean Marie izenez bataiatu arren, berehalaxe Jean hori «Xan» bilakatu zen etxean eta lagunen artean. Bost seme-alaben artean, laugarrena izan zen Xan eta mutiletan hirugarrena.

Donibane Lohizunen bertan jaio zen Pantxoa, bere aita, pilota jokalaria bizkorra eta lehen mundu gerlaren ostean, lagun batzuekin batera eraiki zuten *Banque Populaire du Pays Basque* bankuko zuzendari izan zena. Bertako gizartean eta gizarte-ekintzetan txertatuak ziren Diharcetarrak eta Piarres Xarritonen ustez, *Eihartze* euskal deituraren idazkera frantsestu bat baizik ez da Diharce hori.

Lapurdiko barnealdetik etorria zuen ama, arbonatarra, *Katalieneko* alaba eta hogeita hamahiru urte zituenean izan zuen Xan. Baina



Sei urteko Xan, aingeruz jantzia, Errege Eguneko elizkizunean

Iratzederrek berak kontatuko dizkigu, inork baino egokiago, bere amaren dohain eta ezaugarriak: «Begitarte politekoa nuen ama eta begi urdinekoa, erran daiteke ezti eta amultsu bezain buruz hotza zela, ona bezain nahikunde azkarrekoa. Ixila zen eta gauzak beti alde onetik hartzen zituen».

Garai hartako haur gehienek bezalaxe lau esparru sailtara mugatzen zen Xanen mundua. Etxean, famili giroan, han pasatako orduak eta bizitako bizipenek arrasto handia utzi zioten bere baitan. Xanen gurasoak fede handikoak ziren eta erlijiozko giroan bizitu zen txiki-txikitatik. Eskolakoak ere gogoratzekoak egingo zaizkio. Donibaneko karrika, kaia eta batez ere itsasoa ez zaizkio sekula



Donibane Lohizuneko karrikan txirrianduan 10 urterekin



Uztaritzeko ikastegian apezgai, 1937an

Eliza honetan erne zitzaion Iratzederri kristau fedea



ahaztuko eta itsasoa izango da bere poema askoren gai. Elizakoak dira, agian, bere oroitzen zutenen ukiturik bereziena utzi dutenak. Horietako bat 1926ko urtarrilaren 6an, Errege egunez gertatua, betiko izango du kontatzeko. Sei urte zituela, bete berriak. Errege egunez ospatzen omen zen Donibane Lohizuneko elizkizunik sonatuena eta aingeru janzteak tokatu zitzaion Xan mutikoari, hango karriketara zehar prozesioan ibiltzeko. Bihotz ondoan geratu zitzaion irudi hori.

Lau urte geroago, 1930eko aste santuan, izugarrizko enbata heldu zen itsasaldetik, kanpandorrean jauzi zen tximista eta lurrera erori zen elizbarruan zegoen egurrezko gurutzera, sekulako danbatekoa atereaz. Elizaren alboko etxean, jolasean zebilen, noski, Xan, hamar urteko mutikoa eta zarata hori entzutean bere amarengana hurbildu zen zotinka eta hasperenka: «Ama, ama, munduaren bukaera!».

Donibane Lohizuneko haurtzaroak beste irudi bat ere kokatu zuen bere kolkoan, bere poema eta poesia anitzetan erabiliko duena: itsasoa.

Itsasoa!
Zertako ba zure baitan xoratzen gogoa
Zabal zabal zare, mugagabekoa
Gogoratzen daustazu Jaungoikoa

Berak aitortua da, itsasoa izan dela bere irakaslerik onena, itsas ondoan, itsasotik ehun metrora sortua baita. Ez da, beraz, batere

harritzekoa hainbeste aldiz bere olerkietan aipatzea.

Lehenengo hitzak euskaraz entzun zituen etxean, baina bigarrenak frantsesez, Donibane karrika-kantoietan eta behin eskolan hasi zenean frantsesa nagusitu zitzaion euskarari. Horregatik aitortu izan du berak: «Sei urtetarik hamabi urteak arte, euskara arrotu zitzaidan». Eta sarritan entzun behar izaten zuen etxean aitaren oihua: «Euskaraz!».

Udazkenez, 1930eko urrian, Uztaritzeko ikastetxera eraman zuten gurasoek, bere anaia zaharragoekin batera. Uztaritzen egin zuen, bada, 1930-1931 ikasturtea. Hurrengo urtean, Donibanera itzuli zen berriro eta han egin zituen bi ikasturte jarraian, 1931-1932koa eta 1932-1933koa. Beraz, Donibane Lohizuneko eskolan lortu zuen ikasketa ziurtagiria, «frantses eskoletako zertifikata».



St. Joseph eta St. Marie izan ziren Iratzedarren lehen eskolak

Hautua: apaizgoa eta euskara

Hamabi urte bete zituenean hasi omen zen, bere hitzez esateko, «karkula-markula», esan nahi baita, etorkizunaz burua nekatzen hasi zela, gerora zer izan nahi zuen pentsatzen. Bere bi anaiak Mixel eta Pierre Uztaritzen ari ziren goi mailako ikasketak egiten eta udaratan Gipuzkoa aldera joaten ziren beste aldeko abertzaleen mitinetara. Kontuan izan Errepublika garaian bizi dela Hegoaldea, urte horietan. Mixel, anaia zaharrenak, Zumalakarregi handiaren balentriaz egiten zuen amets eta Pierre, bigarrena, idazle eta hizlari eder izateak liluratzen zuen. Eta Xanek ere bazituen bere buruhausteak, bere kezka eta ametsak, handitzen zenerako. Zer egin behar zuen handitzean?

«Armada-aitzindari ote? Politikan sartu eta diputatu atera? Azkenean argi eta garbi ikusi nuen: Apez eginen naiz, Euskal Herrian apez, herritarren bateratzaile eta salbatzaile.»

Hartu du bada Xanek bere erabakia, apaiz izateko erabakia, hamabi urterekin eta han doa aitarengana, erabakiaren berri ematera.

—Aita, apez egin gogo dut!

—Hi apez? Euskal Herrian apez? ez dakik eta hortarakoz euskararik aski!

Egundoko zirrara sortu zion aitaren erantzunak eta barruraino eztena lez sartu zitzaion aitari entzuna. Egun hartan bertan hartu zuen Xanek etxeko liburutegian atzeman zuen *Piarres*, Jean Barbieren liburua. Horrela ekin zion euskararen berreskura-



Larresoron egin zituen apez izateko lehen ikasketak

tzeari. Amak ere asko lagundu zion lanbide honetan, batez ere euskarazko hitzak atzematen, oso hiztegi aberatsa omen zuen-eta. Orduan hasi zen erabaki sendoz, euskal kantu anitz ikasten. Esku artean erortzen zitzaizkion euskal kantak ikasteko amorrua piztu zitzaion, kantuen esaera eder eta politek euskara dotoretzeko eta ederragotzeko balio ziotela uste zuelako. Berak ezagutzen ez zuen kanturen bat norbaiti entzun ezke-ro, ez zen bakean egoten hura eskuratu eta ikasi arte. Zalantzarik gabe, baliagarri gertatuko zaio Iratzederri, urteak geroago, olerkigintzan eta salmogintzan egindako uzta osatzeko, garai honetako ahalegina.

Gazterik, hamabi urterekin hautatzen du Iratzederrek bere bizilagun betikoa izango duen bikotea; apaizgoa eta euskara, fedea eta euskaltasuna. Bikote hori izango da bere bizitza osoan eta luzean lagunduko diona, eragingo diona, hats emango diona eta argi egingo diona.

Apaiz izateko asmoa aitari agertu zionetik aurrera, ez ziren lo egon Xanen egitasmoak eta berehalaxe jakinarazi zion bere erabakia Donibane Lohizuneko bikario jaunari, baina honek ere ez zion harrera onik egin apaizgai izateko borondateari. Ibili eta ibili aurkitu zuen bere asmoa onartuko zuenik eta bere familia ondo ezagutzen zuen apaiz batek aurkitu zion latina erakusteko irakaslea. Horrela ikasturtea hasi orduko ondo prestatua egongo zen Xan Diharce apaizgaia.

Apaiztegia lagun euskaldunak

Esan eta egin, 1933ko urrian sartu zen Xan edo Ganix Diharce Uztaritzeko apaizgaitegian. Ez dakigu zergatik baina ordura arte Xan zena Ganix bilakatzen da orain eta izen honekin abiatzen da apaizgai moduan. Apaizgaitegian, noski, apaiz, irakasle eta ikasle asko ezagutu zituen. Bazen, ordea, guztien artean bat, berarengan itzal handia egin zuena eta miresmen berezia piztu ziona: Pierre Lafitte. Euskaltzale ezaguna, irakasle entzuna eta *Aintzina* aldizkariaren sortzaile. Labegerie, Lartzabal, Legasse anaiak eta Xarritonekin batera. Gero *Herria* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen. Hain zuzen ere, Donibane Lohizunen argitaratzen zuen Pierre Lafittek *Aintzina* aldizkaria eta han bertan egin zen bere aur-



Usterik gutxienean, Belokeko monastegira sartu zen fraile beneditar 1941ean. Eta hango historia idatzi du



Bizitza osoan izan ditu Iratzederrek Xarritonekin harremanak

kezpena. Aurkezpen egunean, beste euskaltzale askoren artean han bildu ziren Mixel eta Pierre Diharce anaia zaharragoak eta ez zuen hutsik egin anaia gazteenak, Ganix Diharcek, festa horretan. Hiru anaiak etxez etxe ibili ziren gainera aldizkaria eskaintzen, banatzen eta aurkezten. Bere bizitzako bi aukerak garatzen hasia ikusten dugu dagoeneko Ganix gaztea, alde batetik apaizgai ikasketak eta bestetik euskararen aldeko jarrera, biak jorratzen, biak lantzen.

Handik bi urtetara, 1935eko udazkenean, Atharratzeko *Eskualzaleen Biltzarrean* agertzen da Ganix apaizgaia bere bi anaia zaharragoekin batera. Berarentzako egun gogoangarria izango da Atharratzekoa. Egun hartan izan zuen Hegoaldeko pertsonaia sonatu batzuk ezagutzeko eta entzuteko aukera. Han agertu ziren, zein baino zein, Aitzol,

Eizagirre eta Monzon, Oxobiren ondoan. Iratzederrek, geroztik behin baino gehiagotan gogoratu duen moduan, han egon zen Ganix, zur eta lur, begiak zabal-zabalik, ikuskizun haren aurrean, gizon haiei so. Agian, hemen pizten zaio Ganix mutil gazteari euskaltzale izatek abertzale izateko jauzia. Barruraino iristen zaio Hegoaldeko abertzale haien gizatasuna, zintzotasuna eta ondradutasuna. Erabat uztarturik ikusten baititu bere bizitzako bi zutabe nagusiak: euskaldun eta fededun. Gizon haiengan islaturik ikusten baitzuen bere dotrina. Hala dio berak, elkarrizketa batean: «Pentsatu nuen Euskal Herriak behar zuela zeruetako Jaungoikoaren indarra, bertze indar guztiak maiz indar faltsuak zirela, gezurrezkoak. Jainkoari lotzen banion Euskal Herriaren bizia, orduan, mendez mendeko bizia izanen zuela eta geroari nagusituko zitzaiola».



Oso lagun zuen Tomas Garbizuren omenaldian, Patri Urkizu Lezoko alkatearen ondoan

Beraz ez da harritzeko, Hegoaldeko abertzaleak ezagutu ondoren, bihotz barrenetik oihu egitea: «Zer gizonak!» (Argiz-argi).

Hamabost urte zituelarik, 1935ean, goizez egiten zituen apaizgaitegiko ikasketa lan guztiak, etenik gabe, eta, arratsaldez, bi ordu baino gehiago aritzen zen euskara lantzen, euskaraz irakurtzen eta batik bat euskaraz idazten. Halako batean Pierre Narbaitz jaun apezak deitu omen zion Uztaritzeko apaizgaitegian, lagunaren artean zer eztabaidatzen ari ziren galdetuz: eta Ganixek, bada, batzuk Errege zale direla eta bertzeak Errepublika zale. «Eta hi?». «Ni? Euskalduna!».



Gabriel Lertxundirekin elkarlanean egin zituen elizako kantu asko

Hamasei urte zituenean gaixotu egin zen eta hiruzpalau hilabetez etxean egon beharra izan zuen. Uztaritzetik hurbil dagoen Larresoron, bere izeba batek hartu zuen bere etxean eta han pasatu zuen denboraldi hori. Denboraldi honetan *Gure Herria* agerkariko kantu eta artikulu guztiak irentsi omen zituen. Garai hartakoak dira argitaratzera ematen dituen lehen poemak. «Ainhoa» izenburu duena Donostiako *El Día* egunkarian Ixaka Lopez Mendizabalen bidez, «Donibandarrak» *Euskalduna* aldizkarian eta «Apaizgaitegia» deiturikoa *Aintzina* aldizkarian.

Eta 1936ko ekainaren 29an, San Pedro egunez, Piarres Lafitteren santu eguna izaki, Ganix Diharce hautatu zuten bere ikaskideen artean, irakasleari gorazarre eta esker oneko eskaintza bertsoz egiteko, denen izenean.



Gerrako iheslarien alde

SP
amabost-hamasei urtetan buru-belarri euskara lantzen eta poemagintzan ari-tuko da Ganix Diharce. Berak dionez, «errabiatua nintzen euskal kantuen ikasten eta euskal kantuak izan dira ene irakasleak».

Baina 1936ko udan ikasleak oporretan zeudela, piztu zen gerra Bidasoaren bestaldean, Hego Euskal Herrian, eta gertaera honek sekulako eragina izan zuen Iparraldean, Uztaritzeko apaiz-gaitegian eta zer esanik ez, Ganix Diharcerengan.

Euskal Herriko zeru ez-tian, hodei beltzak bildu dira;



Belokeko monastegitik askotan atera behar izaten zuen kanpoko zereginetara

Haizen artetik izigarrizko sistutan ari da
herra...

Odol berozko iturburu bat doa menditik
behera...

Frantzian eta Iparraldean katoliko askok, gehienek, ez zuten konprenitzen nola euskal abertzaleak hain katoliko izanik, Francoren kontra eta Errepublikaren alde atera ziren. Ondorioz, egundoko eraso, jazarpena eta gaitzespena jaso zuen abertzaletasunak eta ildo

beretik, euskaltasunak ere. Frantziako eta Iparraldeko eliza ofiziala, apaiz ugari, kazetari eta irakasle gehienak Francoren «gurutzadaren» alde agertu ziren. Banaka batzuk bakarrik izan ziren Frantzian, ospetsuen artean, euskal katolikoek bidea konprenitu eta babesten zutenak. Aipatzekoa da Jacques Maritain, Francois Mauriac edo Georges Bernanos, filosofo eta idazle ospetsuek izan zuten jarrera. Gutxiengo baziren ere, haien ekarpen kualitatiboa euskal abertzale eta katolikoek mesederako izan zen, ez bairik gabe.

Ganix eta bere lagun euskaltzaleek *Euzko Deya*, *Esprit*, *Temps présent* eta antzeko aldizkarietan aurkitzen zituzten defentsarako informazioa eta argudioak, baina berak kontatuko digu inork baino hurbilagotik orduko giroa: «Espainiako gerla denboran, irakasle eta ikasleak oro (Lafitte salbu, erran gabe doa), Francoren alde ziren. Piarres Xarriton eta ni ginen bakarrik, agerian eta goratxi,



abertzaleen alde; Xarriton «adimendua» zela zioten eta ni «bihotza». «Zoroa naizela diote, zer diozu? galdetu nion Lafitteri»; eta hark erantzun: «A! zu bezalako zoro anitz balitz, zentsu gehiago baliteke munduan!».

Abertzale eta euskaltzaleen aurkako erasoak ugaritzen eta areagotzen zihoazen heinean, Ganix eta bere adiskideen kontzientzia indartzen eta tinkotzen ari zen. Aitzol, Lekuona eta Markiegi apaizen erailketak izugarritzko asaldura eta zirrara sortu zuen haiengan. Berehalaxe etorri zen, baita ere, Gernika eta Durangoko bonbaketek egin zuten sarraskiaren eta txikizioaren berri. Eta aldi berean Mateo Mujika gotzainaren erbesteratzea, abertzale katolikoek aukera politikoa gaitzetsi ez zuelako.

Ganix Diharce orduantxe argitaratu zituen *Pindar eta Lanho* izenburua daraman poema sortaren lehen bertsoak. Hegoaldetik zetozten albiste tristeek samina eta ondoeza sortzen zuten Ganixengan eta bonbaketaren ondoren osatu zuen «Gernika» poema.

Eta olerki honen oinean sinatzen du, lehen-dabizikoz, Iratzeder bezala. Bere deitura Diharce izanik, aspalditik bila zebilen, zerbait asmatu nahian, eta lhartz iratzetik etorriko zela pentsatzen zuenez, Iratzeder egokitu omen zitzaion, mendian, askatasunean bizi den iratzea edertu asmoz eta horrela iratzea + eder bikoteak Iratzeder ematen du.

Jean Elissalde Zerbitzariren aulkia hartu zuen Euskaltzaindian 1962an

Euskal musikarien lagun

Hurrengo udan, 1937koan, udako oporretan, Hegoaldetik ihesi joandako pertsona asko ezagutu zuen donibandarrak. Adiskidetasun sakona lortu zuen Ixaka Lopez Mendizabal editorearekin eta gauza bera Tomas Garbizu Lezoko seme eta organistarekin. Utzi diezaiogun Iratzeder berari pasarte hori kontatzen: «Donibanen nintzelarik etorri ziren iheslariak mendiz bertzaldetik. Heiekin ibili nintzen anitz, Garbizu eta bertze batzuekin.

Euskal kantu anitz ikasi nuen heiekin eta orduan heien sua piztu zautan bihotzean».

Behin baino gehiagotan aitortu izan duenez, Tomas Garbizu izan zen bere lehen irakaslea, euskal kantuak eta musika erakusteko, nahiz eta gero beste musikari askorekin aritu: Aita Donostia, Aita Lertxundi, Juan Urteaga, Jose Olaizola e.a. Harreman sendoa izan zuen Juan Urteaga konposatzaile eta Donibane Lohizuneko organujolearekin. Iratzederrek sortutako poemak hark bihurtzen zituen kantu, mu-



Seber Altuberi omenaldia, Gernikan 1979an: Arana, Lizundia, Hiriart-Urruty, Davant, Iratzeder eta Xarriton

sika, doinua emanaz. Eta alderantziz ere bai, aurrena Urteagak musika ipini eta ondoren Iratzederrek letraz jantzi. Horrela aritu ziren, biak hala biak, urte askotan, elkarrekin lanean.

Beste errepublikazale edo abertzale askoren moduan Hego Euskal Herria utzi eta Iparraldean gordetzea tokatu zitzaion Tomas Garbizuri ere eta berak adierazi zuen galdetu zitzaion bakoitzean, denboraldi goibel horretan bi gizon berezi ezagutu zituela. Donibaneko Jean Marie Diharce zen bata eta ospe handiko organojole eta konpositore Charles Lebout, paristarra, bestea.

Aldaketa nabariak

Ganix Iratzederren bizitzan aldaketa nabaria gertatzen da 1938-1939 ikasturtean. Uztaritzekoa utzi eta Baionako Apaizgaitegi Handian sartzen da eta han lagun berriak topatzen ditu, bai ikasle eta bai irakasle, baina Pierre Narbaitz, filosofiako irakaslea, eta Amaud Larralde, bere zuzendari espirituala, izango ditu gertukoenak.

Uztaritzetik Baionara joan arren eta lagun berriak eginagatik, ez zen inolaz ere eten Iratzederrek Lafittekin zuen lotura eta gutxiago bere poemagintzarako grina. Inoiz baino

Iruñean, Nafarroako Museoan, 1979an: Davant, Knörr, Intza, Lafitte, Iratzeder, Zabalza eta Larre





Donibane Garaziko Herriko Etxean, 1975ean, Jean Barbier omentzeko: Irigoien, Iratzeder, Villasante, Alliers, Dassance eta Haritschelhar

gehiago agertzen hasi ziren bere poemak Lafitteren *Gure Herria*-n. Ordukoak dira besteak beste, «Oheti», «Maite zaitut», «Itchaso», «Ibili naiz», «Arratsean» e.a. Kontuan hartzekoa da Ganix Iratzederrek ez dituela oraindik hogeitau urte bete eta, beraz, bere poemak ere adin horretakoak dira, gaztarokoak, geroko heldutasun osorik ez dutenak, baina egia da, aldi berean, gure olerkariak uzta aberatsa pilatu zuela urte horietan.

Jarraiko ikasturtea, 1939-1940koa, gerla tronpeta soinu agertu zen, bigarren mundu gerra hasi zelarik. Iratzederrek pena handiz eta atsekabez ikusi zuen bere anaia zaharrenaren partida. Mixelek etxea eta Euskal Herria utzi eta Armada frantsesean parte hartu behar izan zuen. Apaiz eta apaizgai anitz ere Armadara joatera derrigortuak izan ziren.

Hogei urte bete zituen Iratzeder noiz Baionan noiz Paben ibili zen, 1940ko udan bere jaioterrira itzuli arte.

Egun batez han ikusi zituen iheslari poloniarrek Ingalaterrara joateko itsasontzia hartzen eta geroxeago Hitler-en soldaduak irabazle hirian sartzen eta aste bakar batzuk geroago heldu zitzaienten etxera espero zezaketen albisterik saminena, Mixel anaia zaharrenaren heriotzarena. Belgikako Ardenetan hil zen, 1940ko ekainaren 6an, hogeita sei urte zituela, emaztea alargun eta alaba umezurtz utzirik.

Izugarri hunkitu zuen Ganix Iratzeder anaia zaharrenaren heriotzak. Miresmen handia zor baitzion. Hark eman zion euskal amodioa eta euskararekiko atxikimendua.

Beneditar izateko asmoa

Handik gutxira Apaizgaitegira itzuli zen, berriro, opor ostean, Ganix Iratzeder, baina soldadu alemanek okupatua zuten zati bat eta beste etxe edo etxebizitza batzuetan banatu zituzten apaizgaiak. Ikasturtearen amaieran, 1941eko udan, Markos eta Jakes Légasse anaiak ezagutu zituen Ganix Iratzederrek eta hiruren artean *Aintzina* aldizkaria berrargitaratzeko asmoa hartu zuten, dirudienez Pierre Lafitteren oniritziarekin. Uda osoa horretan pasatu zuten, haiek hirurek ez ezik beste hogeit bat gaztek ere, udazkenean, oporren bukaeran, lehen alea ateratzeko asmoz. Baina Légasse anaiak eta Ganix Iratzeder ziren gehien arduratzen zirenak eta ekimena gehien bultzatzen zutenak. Gainera taldeko askok uste zuen Ganix izango zela aldizkari berriaren zuzendaria, baina hala uste zutenen usteak ustel atera ziren, zeren inork gutxik ezagutzen zituen haren asmo berriak.



Burutapen berriak zerabiltzan bere baitan Ganixek eta 1941eko azaroaren 6an, hogei-ta bat urte zituela, agertu zuen denen bistan, azken aldian gorderik zeukan erabakia. Egun seinlatu horretan Hondet abadeak ematen dio ongietorria Belokeko komentuan eta Jean Marie Diharce, fraide anaia berria han sartzen da, bere aita Pantxoa lagun duelarrik. Egun batzuk lehenago adierazi zien bere lankide eta lagun gertukoenei *Aintzina* egitasmoa haien esku uzten zuela eta berak, Ganixek, bide berri bati hasiera emango ziola.

Nahi nuen bihotz osoz nire Jainkoa maitatu
Nahi nuen indar osoz Herriarentzat
bermatu
Nahi nuen bien maitez osoki bizi, osoki
Bainan bien maitatzeko bihotz bakar bat
izaki...



Bilboko Egoitzan, Gandiaga eta Villasanterekin, 1993an

Iruñeko Diputazioan Gramatika jardunaldiak, 1994:
Krutwig, Oihartzabal, Iratzeder, Lekuona, Ondarra,
San Martin, Villasantek, Altuna eta Salaburu

Euskara eta Fedea, Euskal Herria eta Jainkoa maitatzeko bihotz bakar bat eta hautatu egin behar. Belokeko bidea hartzen du Iratzederrek.

Fraide bidea hartu zuenean, komentuko ohi-tura eta tradizioari jarraituz izena aldatzea erabaki zuen Jean Marie Diharcek. Haurtzaroan Xan, nerabe zenean Ganix eta Beloken sartzean, hogeita bat urtez, Xabier izena hautatu zuen. Zalantzarik gabe San Frantzisko Xabierren oroimenez aukeratutako izena dirudi. Aurrerantzean fraide bezala Xabier izango da eta olerkari moduan Iratzeder eta biak ere batuta ibiliko dira anitzetan, Xabier Iratzeder, izen-deitura bihurtzeraino sarritan. Urtebete geroago, 1942ko azaroan egin zituen bere lehen botoak anaia Xabierrek.

Alemanen mende

Berehala teologiako ikasketei heldu zien nobizio gazteak, baina uste gabeko gertaera baten baldintzatu zuen berriro bere ibilbidea. Agindu berezi bat atera zuen Frantziako gobernu aleman zaleak 1943an, «Derrigorrezko Lan Serbitzua» deitutakoa. Beronen arabera, Frantziako Estatuko 21 urteko gazte guztiek Alemaniara joan behar zuten lanera. Agindu honek eztabaida asko harrotu zuen nahiz Ipar Euskal Herrian nahiz Frantzian eta apaiz edo fraide bakan batzuk kontra azaldu ziren. Belokeko buruek etxera, gurasoengana, bidali zituzten gazteak eta hauetako batzuk Bidasoaz bestaldera, Lazkaora etorri ziren, Alemaniara joan ordez. Gauza bera egin zuen anaia Xabierrek ere. Xabierrek ordea,



Arantzazun Aditz Batua erabakitzeko, 1972an: zutik; Mitxelena, Iratzeder, Haritschelhar, Irigoien, Villasante, Satrustegi, Altuna eta Berriatua; makurturik, San Martin, Lizundia, Intxausti eta Kintana

osasun arazoak izaki, laster jaso zuen itzul-
tzeko baimena eta Belokera itzuli zen berri-
ro, hilabete batzuen ostean.

Baina ez ziren horretan geratu Xabierren
eta Belokekoen ustekabeak eta buruhaus-
teak. Abenduaren 14an polizia alemana eto-
rri zen Belokeko komentura eta berarekin
eraman zituen bertako hiru buru nagusiak.
Hiru hilabete geroago aske utzi zuten bat
Bordelen eta beste biak, aita Hondet eta aita
Joanategi preso egon ziren Buchenwald eta
Dachaun-n, gerra amaitu arte.

Bitarte horretan, otoitza eta lana tartekatuz
idazten, poemagintzan jarraitu zuen anaia
Xabierrek eta garai horretan eginak dira *Bi-
ziaren Olerkia* deituriko poemak, garai horre-



Donostiako EUTG ikastetxean Herri Literatura II. jardunaldian,
1992an

tako joan-etorriak eta pasarteak gaitzat har-
turik, batez ere Lazkaoko egonaldia eta fami-
lia arteko gorabeherak.

Aldi berean Iparraldeko eliz kantak presta-
tzen ari zen Gabriel Lertxundi, ziburutarra,
Belokeko fraidea. Hura musikaria zen, eliz
musikan aditua, baina hitzak egokituko ziz-
kion norbaiten bila zebilen eta hara non
topo egiten duen Iratzederrekin. Oparoa
izan zen Belokeko bi fraide hauen lana, *Kanti-
kak* osatzeko.

Baina ez ziren hor bukatu Xabier anaiaren
harat-honatak eta 1945eko otsailean Fran-
tziako Gobernuak armada berri bat osatze-
ko soldaduen beharra zuenez, gazteak deitu
zituen eta, hala nola, gure Xabier, Belokeko
fraide-gela utzi eta soldadu, Paben edo
Idron-en, bilakatzen den. Halere, soldadutza-
ko baimen bat profitatuz, 1945eko udan, egin
zituen behin betiko botoak eta 1945eko
ekainaren 10ean, hogeita bost urte zituela,
apaiztu zuen, Xabier Diharce, Baionako go-
tzain Leon Terrier-ek.



Bilboko egoitzan, Iratzeder eta Villasante elkarrekin, 1993an

Apaiz berri Beloken

Apaiz egin ezkeroko zintzo bete zuen Xabierrek Belokeko komentuan, hain ezaguna den San Benitoren leloa: Ora et labora: Errezo eta lan. Bietarako aukera ezin hobea eskaintzen zion Belokeko komentuak. Alde batetik eliza, kanposantua, liburutegia, ikasaretoa eta bestetik, borda, mahasti, soro eta belardi. Han bizitu zen ehun bat lagun artean, bakoitzak gustukoaren zuten jarduera eta lanari ekiten ziolarik.

Baten batek pentsa zezakeen behin Belokera joan ezkeroko euskal lanak ahaztuko zituela edo atzean utziko zituela, baina ez, ez zen horrelakorik



Bilboko egoitzan. Irigoien, Larre, Villasante, Iratzeder, Davant, J. A. Etxebarria, Uribarren, Larrarte, Xarriton eta Kintana

gertatu, zeren hango buruek agindu zioten esku artean zituenak aurrera eramane behar zituela. Nahiz eta komentuan bizi, Iratzederrek ez zuen eten etxekoekin, lagunekin eta euskal munduarekin zeukan harremana. Bere senideen berri jasotzen du, Légasse anaien gorabeherak (bat hila eta bestea preso) heltzen zaizkio eta gertaera horiek oro erabiltzen ditu bere poema lanetan. *Zerumendi* deitu sortan (1941-1946 tartekoak) jorratzen dituen gaiak dira. Ondorengoak

dira *Argiz-argi* sortan argitaratzen dituen poemak, baita ere bere oroitzapen eta bere inguruko pertsona ezagunei lotuak. Beste bi lagunekin batera euskaraz ikasteko bidea, *Methode Basque pour débutants* argitaratzen du Beloken, *Ezkila* sortan. Aldi berean latinezko bezperak euskaratzen ditu eta sekularako arrakasta izan omen zuten Mugerreko estrenaldian.

Lehenagotik ere bazituen Iratzederrek zenbait antzerki eta ikusgarri idatziak eta apaiz egin ondorengoak dira honako hauek: «Ton-toteiko hiru semeak» (1947), «Piztu zaiku»,

«Maria eta Kurutzea», «Apez» (1951), «Hermina» (1952), «Eguerri», «Mortutik oihu» (1953), beste batzuen artean.

Iratzederrek lan hauetako gehienak *Ezkila* sortan argitaratu zituen baina 1954an aldizkari berri bat sortzen du Beloken, *Otoitzlari* deritzana eta hemen agertuko dira 1954-1957 bitarteko Iratzederren lanik gehienak. Euskarazko aldizkari berri bat ateratzeak, besteak beste, zera adierazten du: aita Xabierren itzala geroz eta zabalagoa zela Beloken, alegia geroz eta gehiago onartzen zutela bere eginkizuna.



Saran, Elizanbururen omenaldian, 1991: Villasante, Iratzeder, Irigoien, Oihartzabal, Lekuona, Satrustegi, Haritschelhar, Knörr, Larre, Altuna, Arana, Sarasola, Xarriton, Davant, Ondarra eta Peillen

Komentuan bere itzala zabaltzen ari zen neurrian, ardura eta erantzukizun gehiago hartzen ari zen aita Xabier; anaia fraideen arduradun, Moraleko irakasle, nobizioen maisu, e.a, eta 1969an berriro gaixotzen da, ohean egon beharrean eta orduan, ordu luze haietan, pizten zaio Daviden salmoak euskaratzeko asmoa. Gabriel Lertxundi izango da musika jartzaile baina beste askoren laguntza ere, eta ez nolana hiko, jasoko dute: Tomas Garbizu, Jose Olaizola, Juan Urteaga eta Frantzisko Bengoa, izango ditu laguntzaile.

Berriro osasunez suspertu eta gero, 1963an izendatzen dute euskaltzain oso, Euskaltzaindian, eta Pierre Lafitte jaunak ematen dio erantzuna bere sarrera egunean, Iratzede-

rren mintzaldiaren ondoren. Iratzederrek bere aitari, Pantxoa Putxutegiri, eskerrak emanez hasi zuen hitzaldia, «Donibaneko karrrika nausian sorturik ere, etxeko mahainean eskuaraz mintzatzea bortxatu gaituelakotz». Eskerrak, bere amari ere, «bigarren aldiko erakutsi daualako eskuara». Gero Belokeko euskal bideaz, euskal historiak aritu zen, hizketan. Erantzuna Pierre Lafitte jaun kalonjeak eman zion. Beste laudorio askoren artean hauxe esan zion: «Belokeko komentuan sartu zinenean euskalzale bati baino gehiagori ilundu zitzaion bekokia, “bat gutiago eskuararentzat” pentsatuaz, bainan sinismen apurreko horiek ez zekiten Jainkoari emana ugaritu eta biderkatu egiten dela».



Iratzeder Patxi Zabaleta eta Andolin Eguzkitzarekin



Belokeko Abade mitradun sagaratu zuen Jean Paul Vicent Baionako apezpikuak, 1972ko uztailearen 21ean




Zagnanadoko frailegaiei azken agurra egiten, 1988

Bitartean salmoen euskaratze lana amaitzen du aita Xabierrek eta Baionako gotzainari aurkezten dizkio. Gabriel Lertxundiren musikarekin argitaratzen dira, Erromatik oniritzia jaso ondoren. Aita Baztarrikak jarriko ditu gipuzkeraz eta aita Lino Akesolok bizkaieraz. Vatikanoko II. Kontzilioak indar berria eman nahi izan zion Erromako elizari eta bilerak egin ziren Iparraldean eta Hegoaldean euskal liturgia berria osatzeko eta horretarako ezinbestekoak ziren Iratzeder eta bere laguntzaileen lanak. Benetan lan aipagarria aita Xabierrek eta bere laguntzaileek egin zutena liturgia berria euskaraz ematen.

Abade mitradun

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren inguruan jasotzen ditu aita Xabierrek komentuko eta komunitateko ardurarik astunenak; 1969an izendatzen dute abade nagusiaren kontseilari edo priore eta hiru urte geroago, 1972an, bere fraide lagunek bera hautatuko dute Belokeko abade nagusi. Hogeita hamar urte igaro dira Belokera fraide izateko sartu zenetik, bertako arduradun nagusi izatera iritsi arte eta denboraldi luze horretan bere lagunak ezagutzeko aukera suertatu zitzaion. Gainera eginkizun handiak eman zizkieten aurreko abade nagusiek eta eskarmentu handiz jantzirik zegoen aita Xabier, abade buru aukeratu zutenean.



Abade mitradunak, gotzainak bezalaxe, Aita Santua bakarrik du gainetik

Belokeko beneditarrek beti izan dute babesle onaren fama eta Beloken izena babesleku izateari lotua dago. Tradizio hori ondo irabazia du, gerraz gerra eta iheslariz iheslari, garai zailtan babeslekua eskainiz. Han aurkitu zuten babesa eta gordelekua 1936ko gerraren ondorioz ihesi joan ziren gudari eta euskaltzale askok. Bertan aurkitzen dute, berriro, aterpea, 1960 ezkerko polizia frankista eta kartzelaren beldur ihesi doazen abertzaleak. Belokek bere ateak irekitzen dizkie baita Hitler-engandik ihesi dabiltzan judu eta frantsesei ere, 1943an. Gauza bera egiten dute beneditarrek 1956an ihesi datozen algeriar eta marokoarrekin.

Baina 1936an etorritako abertzaleak eta 1960tik aurrera etorriak ez ziren berdinak. Iratzederrek segituan antzeman zion. Lehengoak, 1936koak, euskaldun eta fededun ziren, zer-nolako gizonak!, baina 1960tik geroztikakoak euskaldun ziren, ez ordea, fededun eta jakina, belaunaldi berriaren jarrerak eta izaerak kezka handia sortzen zion aita Xabier bezalako bati, bi zutabeak, sinesmena eta euskara hain ongi bateratzen zituen bati.

Euskal Herrian, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean, izugarrizko aldakuntza sozialak gertatzen dira. Maiatz frantsesaren zipriztinak iristen dira. Apaizgaitegiak hustu, komentueta-

ko kideak gutxitu, gizartea laikotu, erlijioaren itzala maskaldu; gizarte zibila nagusitzen da, askatasun egarria areagotzen, hesi guztien gainetik pertsona bakoitzaren ekimenaren eta erabakimenaren erreinua nagusitzen. Hitz batean esateko, gizarte arauak, jarrera sozialek eta jokabide pertsonalek, inork gutxik pentsa zezaken moduko aldakuntza izaten dute.

Aldakuntza hauek iristen dira, noski, Beloke-ra ere eta bere uhinik bortitzenak aita Xabier buruzagi eta arduradun nagusi denean, gainera. Horrela, bere aurreko izaeran, nekazal ustiapen mardul, sendo eta ikasleku izateari utzi egiten dio Belokek eta nolabait esateko, «kaletartu» egiten da, hau da, sukalde eta gela berriak eraikitzen dituzte «turis-tentzat», kanpokoentzat. Urte askotan izan zen Beloke nekazal munduari atxikia, nekazariei zuzendua, nekazal eskola, «Fededun-laborari» leloa zuelarik goiburu.

Gantin kardinalarekin Lurdesen 1981ean



«Beloken erdaltzea»

Bazirudien Beloke bezalako abadia batek, uhinen eta moden gainetik tinko iraungo zuela, kanpoko haize berrien kontra, gotorleku bat bailitzan. Baina ez, bertaraino iristen dira kanpoko uhinak. Iratzederrek, aita Xabierrek, inork baino sakonago, biziago eta saminduago eramaten du prozesu hori guztia, bere dotrinaren zutabeak, sinesmena eta euskaltasuna, galzorian ikusten dituelako, bera abade nagusi egin aurretik hasita baze goen ere aldakuntza. Kezka horren berri ematen digu, zuzen-zuzenean, «Uhinari Nausi» olerki sortan, *Biziaren olerkia* liburuan. Abade nagusi izendatu aurreko azken bost edo sei urtetan, berak biziki eta atsekabez bizi izan zituela uhin berrien joan-etorrian sortutako belaunaldi euskaldun fedegabeak edota fededun euskara gabeak, eta oraindik haratago ez federik eta ez euskararik ez dutenak. Seguru asko hori izan da urte askotan Iratzederren, aita Xabierren, gurutzerik astunena, deiadarka garrasi egitera eraman zuena:

Hori dut, Jauna beraz,
Nire kurutzea. Beloken erdaltzea.

Badirudi «erdaltze» hitz horrek euskara galtzea baino zerbait gehiago esan nahiko duela hemen: bere nortasuna, bere izaera galtzea.

Geroz eta fraide gutxiago zituen Belokek eta euskaldunen kopurua ere nabarmen murrizten



ari zen. Beraz, ondorioz, Beloken euskal izaera maskaldu egin zen. Halere, otoitzleku eta bakeleku izaten segitu zuen Belokek, aita Xabierren garaian. Eta 1987an, hamabost urtez abade nagusi izan ondoren, Afrikara doa aita Xabier, misiolari. Era guztietako aipamenak eta esamesak izan ziren ingurukoen artean, Iratzederrek bere kargua utzi eta Afrikara joatea erabaki zuenean. Dahomey-en Zagnanado herrian komentu bat zuten erakia Beloketik joandako misiolariak eta hirurogeita zazpi urterekin harat joatea erabaki zuen aita Xabierrek. Berak dioen bezala, ez omen zen joan frantsesa erakustera, ebanjelioa zabaltzera baizik. Han ere, hemen egin zuenez, kantikak eta salmoak haien hizkuntzan eta musika doinuetan ematen zizkien. Gaixotu eta berriro Belokera itzuli behar izan zuen, misiogintzako arduradunek hala agindurik.

Harrezkero Beloken bizi da otoitz eta lan, fedea eta euskara lantzen, etenik gabe. Afrikatik etorri ostean idatzi zuen *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean*, 1991n, eta bi urte geroago, 1993an, Belokeko abadetxearen historia, *Ehun urte Jainko semeen alde*. Ondoren idatzi zituen bi obra, olerki bilduma eta antzerkia: *Biziaren Gudaldia* (1997) eta *Biziaren Airaldia* (2000).

Agustin Bastresak, Ahurtin, Lapurdin, fundatu zuen beneditarren monasterioa 1880an. Gobernu frantsesak ordenaren disoluzioa agindu zuenean, Nafarroako Oltza eta Gipuzkoako Idiazabal eta Lazkaoko komentuetara bildu ziren beneditarrek. Lazkaoko komentua urte batzuetan Belokekoaren menpe egon zen. Belokera itzuli ziren osteria 1928an eta Beloken aipamena euskal kulturari, bertako pertsona batzuei zor zaie (A. Lertxundi, Marzel Etxeandi eta batez ere Jean Diharce *Iratzeder*). Iratzederrek maite du Beloke:

Maite zaitut bihotzetik, maite zaitut Beloke
Zure gaintto kartsuari, oro pindar eta bake
Soinu-kantuz baitario gaur egunaz otoiz-ke.

Hor bizi du Iratzederrek bere udazkenaldia, betiko bidean irmo, betiko bi zutabeetan tinko, garai bateko indarra eta sasoia urritu baizaizkio ere. Borondate handiko gizona, kementsua eta ekimentsua, isila eta bake zalea, baina esan beharrekoa esateko beldurrik eta lotsarik izan ez duena. Berak esana da 1984ko azaroaren 11n, San Martin egunez: «Euskara ukatzen duen euskalduna ez da gizona». Eta berak utzia digu beste mezu hau ere: «Ni baino gazteagoek maita dezatela Jainkoa eta Euskal Herria, Jainkoari emana ez da Herriarentzat galdua».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Euskaltzaindiko Azkue bibliotekari
- Eusko Ikaskuntzari. Charritton, Piarres: *Xabier Diharce Iratzeder*. Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko maiatza

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2302-2 (Lan osoarena)
84-457-2304-9

L.G.: BI - I.372-05